2021 2026

ESTRATEGIA
VASCA DE SEGURIDAD
Y SALUD EN EL TRABAJO

2025EKO JARDUEREN MEMORIA

OSALAN
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

2025eko jardueren memoria

OSALAN
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

Barakaldo, 2026

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de OSALAN: **https://www.katalogoak.euskadi.eus**

Lan honen bibliografia-erregistroa OSALANeko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke: **https://www.katalogoak.euskadi.eus**

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of OSALAN: **https://www.katalogoak.euskadi.eus**

Izenburua / Título:	2025eko Jardueren Memoria / Memoria de Actividades 2025.
Argitaraldia / Edición:	1.a. 2026ko maiatza/ 1.ª edición, mayo de 2026.
Ale-Kopurua / Tirada:	20 ale / 20 ejemplares.
Egileak/ Autoría:	OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
©	Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
Argitaratzailea / Edita:	OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Dinamita Bidea, z.g. / Camino de la Dinamita, s/n 48903 Barakaldo (Bizkaia).
Internet:	www.osalan.euskadi.eus
Diseinua, fotokonposizioa eta inprimaketa / Diseño, fotocomposición e Impresión:	Editorial MIC · www.editorialmic.com
Lege-gordailua / Depósito legal:	LG BI 567-2025

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA 6

2. SARRERA 8

3. I ARDATZA: KULTURA. LAP, EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURALA 10

1. HE: Gizarte kontzientziatuagoa laneko segurtasunari eta osasunari buruz, jakitunagoa eta arduratsuagoa laneko arriskuei aurrea hartzeko 10

2. HE. Autonomoek kontzientzia handiagoa hartzea LAPi dagokionez 13

4. II. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA 14

3. HE. Enpresak erresilienteak dira, eta gai dira osasunari lotutako krisiei eta larrialdiei aurre egiteko 14

4. HE. Enpresek eta antolakundeek laneko arriskuen prebentziorako kalitatezko eredua dute 14

5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun-kalteak gutxiago dira 17

5. III. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEK AZPIMARRATU EGIN DUTE GOBERNANTZAK LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN DUEN BALIOA 25

6. HE. Botere publikoek EAEko Administrazioaren eskumenen barruan egiten dituzte legeak, gaur egungo araudia berrikusten dute, hura hobetzea sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen. 25

7. HE. Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartu dira gobernuaren eta egoki diren beste administrazio publiko batzuen politika guztietan 28

8. HE. Hobetu egin dira laneko arriskuen prebentzioaren egungo ereduan txertatzea zaila duten lan-moduak dituzten kolektiboen (autonomoen, plataformen, etxean lan egiten dutenen) lan-baldintzak eta laneko segurtasunerako eta osasunerako sarbidea. 34

9. HE. Ezagutza handitu egiten da laneko arriskuen prebentzioari lotutako prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatuz generoaren ikuspegitik; horrela, aurrea hartu dakieke gizartean (zahartzea, lana antolatzeko beste aukera batzuk, globalizazioa), teknologian (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenean (klima-aldaketa) gertatzen diren aldaketei 34

10. HE. Informazio-sistema eta adierazle egokiak ezarri dira datuak sistematikoki biltzeko eta azterketa egiteko eta eragileei eta gizarteari horien berri emateko; horrela, prebentziorako eta osasuna babesteko behar diren neurriak planifikatu eta ebaluatu ahal izango dira, genero-ikuspegia eta beste gizarte-ezaugarri batzuk kontuan hartuz 40

12. HE. Gizarte-eragileekiko elkarrizketa sendotu eta finkatu da, pertsonak oinarritzat hartzen dituen eta gizarte-ezaugarriak sartzen dituen laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa-eredua lortze aldera 41

2025eko Jardueren Memoria Aurkezpena

OSALANen 2025eko jardueren memoria honetan, zehazten da 2021-2026 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren esparruan zer ekintza gauzatu diren, Euskal Autonomia Erkidegoan laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko eta laneko segurtasun- eta osasun-oinarriak hobetzeko.

Herritarrak laneko segurtasunaren eta arriskuen prebentzioaren garrantziaz kontzientziatzea da OSALANen oinarrizko helburu estrategikoetako bat. Horren harira, komunikabideetan presentzia aktiboa izatea eta sare sozialen bidez herritarrekin interakzioa izatea lagungarriak izaten ari dira gizartean laneko arriskuen prebentzioari buruzko kontzientzia handitzeko eta gizarte-eragileek eta herritarrek eremu horretan duten konpromisoa indartzeko.

OSALANek arreta berezia eskaini dio laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntzari, eta, bereziki, haurren, gazteen eta langile autonomoen hezkuntzari. Eduki espezifikoak landu dira, eta prestakuntza-saioak eman dira ikastetxeetan, unibertsitateetan eta lineako plataformetan. Herritarrek laneko arriskuen prebentzioaren arloan duten ezagutza eta parte-hartzea neurtzeko egindako inkestek aukera eman dute ekintza horien eragina ebaluatzeko, baita ekimenak hautemandako beharren arabera egokitzeko ere.

Enpresen eta antolakundeen arloan, OSALAN lanean jardun da laneko arriskuen prebentzioaren kalitate-eredu bat garatzeko, prebentzioan parte hartzen duten eragileei eginkizunak modu eraginkorrean betetzeko behar dituzten tresnak emateko asmoarekin. Ekimen horiek lagundu egin dute prebentzio-kultura sustatzen eta lan-inguruen segurtasuna handitzen.

Laneko istripuek eta gaixotasunek osasunari eragindako kalteak ikertze aldera, OSALANek zuzeneko ekintzak gauzatu ditu lantokietan istripuak eta gaixotasunak ikertzeko eta aztertzeko. Herritarrekiko elkarreragina sustatzeko postontzia kudeatu da kontsultei erantzuteko, eta enpresei eta langileei aholkuak eman zaizkie laneko segurtasunaren arloan. Erakundeak ikerketa espezifikoak ere egin ditu; besteak beste, laneko minbiziaren, arrisku psikosozialen eta zenbait sektore espezifikotako lan-istripuen prebentzioaren arloetan (adibidez, eraikuntzakoan eta basogintzakoan).

Halaber, OSALANek indartu egin du nazioko eta nazioarteko hainbat erakunderekiko lankidetza, laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko. Aliantza estrategikoak ezarri dira hainbat eremutan; esate baterako, herri-lanetako prebentzio-jarduerak koordinatzeko eremuan, normalizazioko batzorde teknikoetan parte hartzeko eremuan eta laneko segurtasunaren arloko

gobernu-erakundeekin eta nazioarteko antolakundeekin lankidetzan jardutekoan.

Laburbilduz, OSALANen 2025eko jardueren memorian azaldu dugu laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko ikuspegi integral eta proaktiboa, eta funtsezko alderdiak jorratu ditugu, hala nola kontzientziazio soziala, prestakuntza, prebentzioaren kalitatea, osasunerako kalteen murrizketa, erakundeen arteko lankidetza eta ezagutzaren sorkuntza. Aldi honetako ekintzen helburua izan da euskal gizartean prebentzio-kultura indartzen laguntzea eta lan-baldintzak hobetzea, lan-ingurune seguruagoak eta osasungarriagoak bermatzeko. Gainera, genero-ikuspegiak eta beste gizarte-baldintzatzaile batzuk txertatzeak erakusten dute erakundeak konpromisoa duela lan-eremuko ekitatearekin eta jasangarritasunarekin. Lan integral horrek indartu egiten du OSALANek duen posizionamendua EAEko laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko funtsezko erakunde gisa.

Lourdes Iscar Reina
OSALAN – Laneko Segurtasun
eta Osasunerako Euskal Erakundeko
zuzendari nagusia

Sarrera

OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzako administrazio-organismo autonomo bat da, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari lotua, eta haren erantzukizuna da lan-esparruan segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako ekimenak kudeatu, koordinatu eta sustatzea. Bulego nagusiak eta hiru lurralde-zentro ditu. Bulego nagusi horiek Barakaldon daude. Zentro bakoitzeko antolakuntza egokitu egiten da diziplinetara eta ekoizpen-sektoreetara (eraikuntza, lehen sektorea, industria, zerbitzuak, laneko osasuna). Gainera, diziplina anitzeko lantaldeak eratzen dira proiektu espezifikoak garatzeko. Guztira, 173 profesionalek lan egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoko langileen laneko segurtasuna eta osasuna sustatzen, eta, horretarako, 18 bat milioi euroko urteko aurrekontua dute.

2025. urtean ere, OSALAN lanean jardun da «2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian» ezarritako hiru ardatzen eta helburuen arabera.

I. ardatzaren muina kultura da, eta, horren arabera, lortu nahi da laneko arriskuen prebentzioa izan dadin euskal gizartearen kultura-ezaugarri bat.

OSALANek lan egin du euskal gizartea jabetu dadin zein garrantzitsuak diren laneko arriskuen prebentzioa eta laneko segurtasuna. Komunikabideetan, sare sozialetan eta kontzientziazio-kanpainetan duen presentziaren bidez lortu du mezu hau jende askori helaraztea. OSALANek hobetu egin du langile autonomoentzako eta ETEen titularrentzako informazioa, eta inkestak egin ditu neurtzeko herritarrek zenbat dakiten arlo honetaz eta zenbat parte hartzen duten.

II. ardatzaren helburua da, berriz, prebentzio-kudeaketa sendoa eta kalitate handikoa lortzea. Kontua da laneko arriskuen prebentzioa har dadila antolakundeen bikaintasunaren ezaugarri bereizgarritzat, bai administrazioetan, bai enpresa publiko eta pribatuetan, enpresa-sare jasangarria, modernoa eta lehiakorra sendotzeko testuinguruan.

II. ardatzari dagokionez, OSALANek prebentzioa indartzeko kalitate-eredu bat sustatu du enpresetan, arreta jarriz genero-ikuspegian eta antzeko alderdi garrantzitsuetan. Koordinazioa hobetzeko proiektuak egin dira sektore espezifikoetan, hala nola eraikuntzan, osasun-jardueretan eta lehen sektorean. Gidak eta protokoloak landu dira laneko arriskuen prebentzioa hainbat arlotan optimizatzeko.

III. ardatzak gobernantzan jartzen du arreta, eta, bertan, nabarmendu egiten da botere publikoek garrantzia ematen diotela lan-eremuko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketari.

III. ardatzean, OSALANek laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko baterako ekintzak egin ditu beste administrazio publiko batzuekin, eta, horretarako, laneko arriskuen prebentzioa hainbat eremutan txertatzeko lana indartu du. “2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia” ezartzen buru izan da, eta lanean jardun da nazioko eta nazioarteko hainbat erakunderekin. Era berean, ahalegina egin du bere barneko prozesuak eta herritarrentzako eta enpresentzako zerbitzuak hobetzeko.

Segidan, zehaztuta daude 2025. urteko Kudeaketa Planean garatutako eta OSALANek aurrera eramandako ekintzak, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren helburu estrategikoen arabera antolatuta.

ARDATZA 1 KULTURA. LAP, EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURALA

1. HE: Gizarte kontzientziatuagoa laneko segurtasunari eta osasunari buruz, jakitunagoa eta arduratsuagoa laneko arriskuei aurrea hartzeko

Handitu da laneko arriskuen prebentzioa zer den badakien, hura betetzeko eskatzen duen eta konpromiso aktiboa duen biztanleriaren proportzioa, jarduera hauen bidez:

Komunikabideak, web-orria eta sare sozialak

- Zuzendarien eta teknikarien bidez, OSALAN komunikabideetan egon da, honako hauek tarteko:
  - » 18 elkarrizketa irratian, telebistan eta prentsan.
  - » 55 prentsa-ohar.
  - » 2 prentsaurreko.
  - » 3 erreportaje.
  - » 9 sentsibilizazio-mezu hilean.

- Kontzientziatze-kanpainak eginez:
  - » "LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA ERE EGUNERATUKO DITUGU? Bilakaera digitalak eta laneko ongizateak batera egin behar dute aurrera beti", Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Egunaren kanpaina.
  - » "Osalan.app: Laneko Segurtasuna eta Osasuna pertsona guztientzat", Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Europako Astearen inguruan egina.
- OSALANek ez dio utzi sare sozialetan egoteari: Facebook sarean, OSALAN eta Itsaspreben YouTubeko kanaletan, Linkedln-en eta X sarean. Horrez gain, OSALANen web-orrian mikroweb-orri espezifikoak daude oraindik ere.

1. taula. OSALANen web-orriko eta sare sozialetako trafikoaren gaineko datuak. 2025. urtea

Ekitaldia	Saioak	Erabiltzaileak	Ikusitako orriak	YouTubeko OSALAN kanaleko erreprodukzioen kopurua
2021	620.894	320.626	502.972	270.723
2022	207.450	331.854	411.666	350.752
2023	188.897	158.592	180.946	239.603
2024	117.054	72.665	290.031	448.314
2025	214.689	143.510	417.024	1.635.080

Gizartearen parte-hartzea

Herritarrek nabarmen parte hartzen dute OSALANen sare sozialetan eta web-orrian orain ere.

OSALANek herritarrekin elkarrekintzan aritzeko web-postontzi bat dauka, eta, haren bidez bideratzen dira eskaerak eta kontsultak. 2025ean, kasu egin zaie laneko segurtasunarekin eta lanarekin lotutako 597 kontsultari.

Prebentzio-kultura zabaltzea

2025ean, OSALANek 12 argitalpen egin eta zabaldu ditu:

- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentziozko kudeaketa
- 2025. urteko Kudeaketa Plana
- 2024ko jardueren memoria
- Errematatzaileen zereginetako lan-prozesu seguruen gida
- Jardunbide egokiak mozketa-eragiketen plangintzan eta aurreko lanetan
- Motozerra erabiltzea eta jardunbide egokiak zuhaitz katigatuekin
- Gaixotasun profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2024ko txostena
- Lan-istripuak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2024ko txostena
- Laneko minbiziaren zaintza epidemiologikorako 2023-2024ko urteko txostena
- Euskadiko adikzioei buruzko inkesta 2023: Lan-eremuko azterketa, genero-ikuspegia kontuan hartuta
- Prebentzio-baliabidearen gidaliburua eta beste lan-zaintza batzuk

» Trenbide-gainegiturak eraikitzean sortzen diren lan-arriskuak prebenitzeko gidaliburua. II. Berritzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko obrak

Prebentzio-kultura haur eta gazteentzat

- Haur eta nerabeen artean dibulgazio- eta prestakuntza-ahalegin handia egin da, etorkizuneko langileak direnez gero duten garrantziagatik:
- Mantendu egin da GAZTEPREBEN mikroweb-orria. Hor, laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako edukiak daude propio haurrentzat eta gazteentzat.
- Lanbide Heziketako ikasleentzako dibulgazio- eta prestakuntza-lana egin da: ADI proiektuaren esparruan, Lanbide Heziketako 13 ikastetxetako eta 72 taldetako 901 mutilek eta 347 neskak egin dituzte prestakuntza-saioak; Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin lankidetzan jardunez aurrera eramaten da ADI proiektua.
- Gainera, Lanbide Heziketako ikastetxeetako 8 taldetako 266 neskak eta 277 mutilek bisitatu dituzte OSALANen instalazioak, informazioa eta dibulgazio-materiala jasotzeko.
- Unibertsitate-arloan, EHUren udako ikastaroetan, OSALANen Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko XV. ikastaroa antolatu du OSALANen Zuzendariordetza Teknikoak. Hauxe izan da ikastaroaren izenburua: «XXI. mendeko enpresa- eta gizarte-eredu berria: laneko arriskuen prebentziorako erronka»; 13 hizlari (6 emakume eta 7 gizon) aritu dira. Ikastaroa 94 lagunek egin dute (55 emakume eta 39 gizon). Bertan aztertu ziren aldaketen eta enpresa-eredu berrien ondorioz sortzen diren arriskuak, bai eta prebentzioaren arloan adimen artifizialak duen erabilera ere.

Laneko medikuntzako eta erizaintzako espezialitateen sustapena

- Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Katedra EHU – OSALAN aurkeztu da. 9 mintegi egin dira Medikuntza eta Erizaintza graduetako ikasleei Katedra aurkezteko.
- Udako ikastaro hau eman da: “Laneko erizaintza 2025. urtean”.
- Ikertzaileak laneko osasunean trebatzeko, Katedrako jardueretan “Laneko osasunari buruzko datuak aztertu eta aurkezteko ikastaro aurreratua” ikastaroa eman da, unibertsitate-hedakuntzakoa (1. edizioa, urriaren 15etik azaroaren 30era).
- Lan-osasuneko elkarte, sozietate zientifiko, katedra eta ikasgela-enpresen topaketa antolatu da Bilbon. Hauetan parte hartu da: Hezkuntza Medikoko Espainiako Elkartearen Nazioarteko II. Biltzarrean eta XXVII. Kongresu Nazionalean, Laneko Erizaintzari buruzko Galiziako VI. Jardunaldian, Nazioarteko 25. ORP Biltzarrean eta espezialitateko BAME eta BAEEei ongietorria egiteko jardunaldian. Abian jarri da lan-osasuneko ezagutzei buruzko erronken jarduera.
- Katedra koordinatzeko taldeak koordinazio-bilerak egin ditu aldian behin 2025ean.

2. HE. Autonomoek kontzientzia handiagoa hartzea LAPi dagokionez

OSALANen web-orrian, eutsi egin diogu langile autonomoentzako jakintza-arloari buruzko txokoari. Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko informazio espezifikoa biltzen du haientzat: betebeharrak, araudia, argitalpenak, prestakuntza, izapideak, eta abar.

ARDATZA 2 PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA

3. HE. Enpresak erresilienteak dira, eta gai dira osasunari lotutako krisiei eta larrialdiei aurre egiteko.

Lankidetzan jarraitzen dute Osasun Publikoko Zuzendaritzak, OSALANek eta prebentzio-zerbitzuen ordezkariek, sortzen diren arazoak konpontzeko edo osasunari lotutako krisiei eta larrialdiei aurre egiteko.

4. HE. Enpresek eta antolakundeek laneko arriskuen prebentziorako kalitatezko eredua dute

OSALANek lan-lerro bat du enpresetan lan-arriskuen prebentziorako jardueren kalitatea sustatzeko, eta, horretarako, eragileei –bereziki, enpresariei, prebentzioko ordezkariei eta prebentzio-erakundeetako langile tekniko eta sanitarioei– beren egitekoak egiteko erraztasunak ematen dizkieten tresnak garatzen ditu. Lan-ildo horretan, ekimen hauek sartzen dira:

Genero-ikuspegia lan-arriskuen prebentzioan txertatzea

OSALANek dibulgazioko ekintzak eta materialak egin ditu laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeari buruz:

- OSALANek, genero-ikuspegia txertatuta, laneko segurtasunari eta osasunari buruzko edukiak sartu ditu liburutegiak argitaratutako buletin guztietan eta bereziki 2025eko 11 newsletterretatik 3tan.
  - » Otsaileko newsletterra: Berdintasun-planetan prebentzioko kudeaketa-neurriak genero-ikuspegitik garatzeko dirulaguntzei buruzko informazioa.
  - » Apirileko newsletterra: Osalanen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2022-2024ko Bigarren Planaren balantzea.
  - » Azaroko newsletterra: Emakundek, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailarekin eta Osalanekin batera, tresna bat aurkeztu du enpresei emakumeentzako lan-espazio seguruak bermatzen laguntzeko “Laneko indarkeriaren hurbilketa laneko arriskuen prebentziotik” jardunaldian.
- Web-orrian, eguneratu egin ditugu generoari buruzko ataleko edukiak.

- OSALANek genero-ikuspegian oinarrituta zeuden laneko segurtasunari eta osasunari buruzko foro eta jardunaldi hauek antolatu ditu, edo horietan parte hartu du:
  - » "Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeko zailtasun nagusiak. Zer eta nola egin dezakegu?" hitzaldia aurkeztu du Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalak antolatutako "Laneko segurtasunean eta osasunean genero-ikuspegia txertatzea" jardunaldi teknikoaren esparruan (Madril, martxoak 2).
  - » Osalanek berdintasunaren arloan egindako lana aurkeztu zion Finlandiako ordezkaritza bati (irailak 24).
  - » Genero-ikuspegitik egindako laneko arriskuen ebaluazioari eta Osalanen esperientziari buruzko elkarrizketa 1º Mayo-CCOO Fundazioarentzat (irailak 30).
  - » Mutualiaren jardunaldi teknikoan parte hartu du. Laneko jazarpenaren eta indarkeriaren prebentzioa: eraginkortasunez jarduteko eskakizunak eta protokoloak (urriak 14).
  - » Emakunderekin batera antolatu du "Laneko Arriskuen Prebentziotik emakumeen aurkako indarkeria matxistara hurbiltzea" jardunaldia, hiru aldekoa (azaroak 5).
  - » "Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentziozko kudeaketa" tailerra, prebentzio-zerbitzuko teknikarientzat (azaroak 11).
  - » "Laneko sexu-indarkeriaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontzeptua, ezaugarriak eta arrisku-faktoreak" hitzaldia "Laneko sexu-indarkeria eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzea eta erantzutea" jardunaldi teknikoan. Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalak antolatu du (Madril) Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Erakunde arteko Sarean (azaroak 25).

Arrisku psikosozialen prebentzioa

OSALANek lanean dihardu arrisku psikosozialen ebaluazioak egiten eta prebentzio-neurriak ezartzen lagunduko duten tresnak sortzeko, laneko arrisku horien eraginpean egoteagatik sortzen diren kalteak murrizte aldera.

- Psikosoziologiaren arloko edukiak eguneratu dira OSALANen web-orriaren txoko espezifikoan: "Psikopreben" txokoan.
- Amaitu da EAEko enpresetako arrisku psikosozialen mapa eguneratzeko kanpaina.
- OSALANen Laneko Psikosoziologiari buruzko XV. jardunaldiak egin dira (azaroak 20). Hona hemen izenburua: "Esku hartzea laneko indarkeriaren tipologien aurrean". Guztira, 246 lagun izan dira: 154 emakume, 91 gizon eta pertsona ez binario bat.
- ICMA37 faktore psikosozialak ebaluatzeko tresnaren aurkezpenean parte hartu da (azaroak 28).
- Arrisku psikosozialen faktoreekin lotutako 12 istripu aztertu dira.
- Laneko agintariek eta agintari judizialek egindako 4 eskaerari erantzun zaie.

Laneko arriskuen prebentzioa lehen sektorean

OSALANek lankidetzan dihardu "Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2019-2025eko Estrategia Sektoriala" garatzen. Testuinguru honetan egin dira lehen sektoreko ezbeharrak kontrolatzeko kanpainak.

Osalanek, Laneko Ikuskaritzarekin eta foru-aldundien lankidetzarekin abian jarri du basolanetako istripuei aurre egiteko plana, eta hiru lantalde sortu dira. Lantalde bakoitzean, Osalaneko ordezkariak, Laneko Ikuskaritzakoak, Gipuzkoako Foru Aldundikoak eta Portugal, Italia eta Frantziako ikuskaritzetakoak daude eta Europako Lan Agintaritzarekin basogintzako lanak ikusiko dituzte lan-baldintzak bertatik bertara ezagutzeko eta segurtasuna hobetzeko esperientziak partekatzeko.

- "Segurtasuna basogintzako lanetan" aholkua ondu da.
- "Errematatzaileen zereginetako lan-prozesu seguruen gida" argitaratu da.
- OSALANek EuskadiPreben-en Egur eta Basogintzaren Jardunaldian parte hartu du (urriak 30), basogintzako istripuen egoeraren azterketa egin du eta baso-ezbeharren aurkako talka-plana aurkeztu du.
- OSALANek "Bafadak eragindako arriskuak murrizteko ekintzak" komunikazioa aurkeztu du Prevencionar Biltzarrean.

Agente kimikoen esposizioari lotutako arriskuen prebentzioa

OSALAN lanean jardun da agente kimikoen eraginpean egon daitezkeen pertsonen arriskuen ebaluaziorako tresna lagungarriak sortzeko, bai eta prebentzio-neurriak ezartzeko eta pertsonen osasuna babesteko ere.

OSALAN Ihoberekin aritu da lankidetzan (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa), udalek amiantodun instalazio eta kokalekuen erroldak egiteko metodologia bat zabaltzeko, Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko 7/2022 Legearen 14. xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituta.

Prebentziorako kalitatezko eredu bat enpresan

OSALAN bi lan-ildo garatzen ari da Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Erakundearteko Sareko prebentzio-zerbitzuen jarduketak hobetzeko lantaldearekin —lantalde horretan daude beste autonomia-erkidegoetako erakundeetako langileak eta Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalekoak—:

» Erreferentziazko eredu bat, prebentzio-jarduerak kalitatezko irizpideekin egiteko.

» Segurtasun-, higiene- eta ergonomia-arloko arriskuak eta arrisku psikosozialak ebaluatzeko diseinua eta prebentziozko planifikazioaren diseinua.

Era berean, jardunbide onen eta gomendioen gida bat egin du kudeaketan prebentzioa txertatzeari eta genero-ikuspegia sartzeari buruz.

Laginak aztertzeko laborategia

OSALANek, enpresetan laneko arriskuen prebentzioko jardueren kalitatea sustatze aldera, laborategiko zerbitzuak eskaintzen ditu ingurumen-laginak aztertzeko. Zerbitzu horiek ematen dizkie enpresei eta prebentzio-antolakundeetako prebentzioko ordezkariei eta teknikariei, laguntzeko langileek lanpostuetan agente kimikoekiko duten esposizioa ebaluatzeko zereginetan.

2. taula. Analisi-zehaztapenak. 2025. urtea

Egindako analisi-zehaztapen kopurua	1.484
Egindako txosten kopurua	108

5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun-kalteak gutxiago dira

OSALANek landa-ekintzak garatu ditu lantokietan interesa duten pertsonekin zuzenean harremanetan jarrita, funtsezkoak baitira laneko segurtasunari eta osasunari buruzko ezagutza hel dadin eguneroko lanean aplikatu behar dutenengana.

- OSALANek aztertu eta ikertu ditu Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu diren lan-istripu hilgarriak, oso larriak, larriak eta anizkunak eta prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jotzen diren istripu arinak. Istripu horien kausei eta faktoreei buruzko informazioa lortu du, eta dagozkion zuzenketa-neurriak proposatu ditu. Hauek dira 2025ean aztertutako eta ikertutako istripuen datuak:

3. taula. Ikertutako istripuak. 2025. urtea

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	E.A.E.
HILGARRIAK	Traumatikoak	3	10	1	14
	Ez-traumatikoak	3	5	0	8
	In itinere	3	0	1	4
	Misioan	0	0	0	0
OSO LARRIAK/ LARRIAK	Traumatikoak	21	32	38	91
	Ez-traumatikoak	2	1	0	3
	In itinere	3	0	8	11
	Misioan	2	0	2	4
ARINAK	Traumatikoak	12	6	7	25
ANIZKUNAK	Traumatikoak	0	1	0	1
SAILKATU GABEAK	Traumatikoak	0	0	0	0
GUZTIRA		49	55	57	161

Istripu arinen jarraipenen kopurua	155

- Traumatikoak ez diren lan-istripuen ikerketan, OSALANek protokolo bat du istripu horiek ikertzeko. Protokolo hori egin da, hain zuzen, Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin, zortzi autonomia-erkidegorekin eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzarekin lankidetzan. Tresna honen xedea da kausa kardiobaskularrak eta/edo zerebrobaskularrak eragindako lan-istripuak ikertzea, hartara ekintza espezifikoak ezartzeko. Halaber, istripu horiekin lotutako aldagaiak biltzeko balioko du.

- Era berean, OSALANek aztertu ditu beste kausa eta faktore erabakigarri batzuk ere, eta honako hauen inguruko informazio garrantzitsua jaso du: gaixotasun profesionalak, lanetik eratorri izan ahal diren gaixotasunak, gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpenak eta osasun-alertak. Horrez gain, gaixotasun horiek prebenitzeko azterketa egin du, eta behar diren zuzenketa-neurriak proposatu.

- Gaixotasun profesionalen ikerketa: gaixotasun profesionalak ikertzen ari gara Laneko Ikuskaritzaren laguntzarekin. Ikerketa-prozedura horrek ahalbidetu egiten du gaixotasun horien kausak kodetzea, oinarritzat hartuta Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalaren ikertzeko prozedura, eta haren edukia egokituz Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren gaixotasun profesionalen ikerketa-datuen erregistro harmonizatuaren proposamen sinplifikatura eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduera-gidara, gaixotasun profesionalak ikertzeko eta horiei

buruzko txostenak egiteko. Horretarako, gainera, lan-prozedura digitalizatu bat sortu da Tramitagunen.

4. taula. Laneko Ikuskaritzarekin lankidetzan ikertutako gaixotasun profesionalak. 2025. urtea

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE, GUZTIRA
5	6	9	**20**

- Gaixotasun profesionalei buruzko susmoen jakinarazpena:
  - » Gero eta gehiago dira laneko gaixotasunei buruzko susmoen jakinarazpenak; 1.132 kasu jakinarazi dira.
  - » Osakidetzako langileentzako prestakuntza-ikastaro bat egin da Jakinsarea plataformaren bidez, eta prestakuntza- eta sentsibilizazio-saioak egin dira ESIentzat eta ospitaleko arreta-zerbitzuko buruentzat. Osakidetzako ospitaleek eskatuta ere egin dira prestakuntza-jarduerak.
  - » Lortu da sudur-barrunbeetako mesotelioma eta adenokartzinoma guztiak gaixotasun profesionalen susmo gisa jakinaraztea.
  - » Gaixotasun Profesionalaren Susmoaren Batzordearen hiru hilean behingo bilerak egin dira, parte hartzen duten organismoen arteko koordinazio-arazoak konpontzeko.

5. taula. Gaixotasun profesionalei buruzko susmoaren jakinarazpenak lurralde historikoen eta jatorriaren arabera. 2025. urtea

JATORRIA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE, GUZTIRA
Prebentzio-zerbitzuak	27	59	107	**193**
Osakidetzaren osasun-zerbitzuak	172	497	237	**906**
GUZTIRA, EAE	**199**	**556**	**344**	**1.099**

6. taula. Patologia infekziosoa lan-ingurunean: kasuak edo agerraldiak. 2025. urtea

JASOTAKO KASU EDO AGERRALDI KOPURUA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
LEGIONELLA	3	1	15	19
HAZTERIA	1	9	5	15
GASTROENTERITIS AKUTUA	0	4	0	4
A HEPATITISA	0	0	2	2
ZOONOSI EZ-ESPEZIFIKOA	0	0	4	4
PSITAKOSIA	0	0	2	2

ESKU-HARTZE KOPURUA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
LEGIONELLA	6	6	17	29
HAZTERIA	1	1	10	12
GASTROENTERITIS AKUTUA	0	1	0	1
A HEPATITISA	0	0	2	2
ZOONOSI EZ-ESPEZIFIKOA	0	0	2	2
PSITAKOSIA	0	0	2	2

- Herritarrekin elkarrekintzan aritzeko postontzi bat dago; eta, horren bidez, eskaerak eta kontsultak bideratu dira. 2025ean, laneko segurtasunari eta osasunari buruzko 2.072 kontsulta artatu dira eta horietatik 597 postontzi horretan egin dira.

- OSALANek erantzun eta aholku eman die enpresek, langileek, herritarrek, haien ordezkariek eta prebentzio-antolakundeek egin dituzten eskaera guztiei OSALANen eskumenei dagokienez laguntza teknikoa jasotzeko. Guztira, 86 txosten tekniko igorri dira.

- Laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko aholkuak eman dira 1.307 lantokitan egindako bisitetan, lantokiak irekitzeko jakinarazpena jaso ondoren, lehen sektorean, industrian, zerbitzuetan eta eraikuntzan.

7. taula. Ireki berri diren eta bisitatu diren lantokiak. 2025. urtea

LURRALDEA	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ZERBITZUAK	ERAIKUNTZA	GUZTIRA
ARABA	10	19	14	220	263
BIZKAIA	0	30	44	517	591
GIPUZKOA	10	6	73	364	453
GUZTIRA	**20**	**55**	**131**	**1.101**	**1.307**

- Arrisku psikosozialen arloko laguntzan eta aholkularitzan, 44 kontsulta teknikori erantzun zaie, eta enpresei eta langileei aholkuak eman zaizkie arrisku psikosozialen ebaluazioaren

jarduerari buruz, gorabeheren ikerketari buruz eta laneko jazarpeneko kasuetarako ikerketa- eta jarduketa-protokoloei buruz. Arlo horretan, 19 eskaera teknikori eta jarduteko eskakizuni ere erantzun zaie.

- Lana utzi osteko osasunaren zaintzan:
  - » Jarraitu da ustez amiantoaren eraginpean egon diren langileen fitxategia kudeatzen eta mantentzen, lana utzi ostean haien osasunaren zaintza bermatzeko.

8. taula. Ustez amiantoaren eraginpean egon diren langileen erregistroaren kudeaketa. 2025. urtea

	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA
SARRERA BERRIAK ZERRENDAN	620	25	**645**
LAN OSTEKO ZAINTZAREN IZAPIDEAK			
Programara gonbidatuak	359	10	**369**
Osakidetzaren zaintza	195	9	**204**
Zaintza beste autonomia-erkidego batzuetan	7	0	**7**
Kudeatutako erregistroak, guztira	17.316	908	**18.224**

  - » Aplikazio informatiko bat sortzen ari gara amiantoaren eraginpean egon uste diren langileen fitxategiaren datu-basea ordezteko. Aplikazio hori bateragarria da Osasun Ministerioaren PIVISTEA aplikazioarekin. PIVISTEA Osasun Publikoa Zaintzeko Sarearen laneko osasunaren zaintza epidemiologikoko sistemaren parte da, eta Osalanen Lan Osasuneko Unitateak lankidetzan dihardu sare horrekin.
  - » Silizearekiko esposizioari dagokionez, gai hori lantzen eta aztertzen duen Espainiako Estrategia Taldean parte hartu dugu, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren esparruan, bi eremutan: 1.- Eraginpean zer biztanle dauden diseinatzea. 2.- Zer ondorio zaindu behar den erabakitzea.
- Bibrazioen eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza espezifikorako protokoloaren zirriborroa egin da, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluko Osasun Publikoko Batzordearen Laneko Osasunari buruzko Ponentziara bidaltzeko, hark izapideak egin ditzan protokolo hori onartu eta argitara dadin.
- Agerraldien zaintza epidemiologikoa, alertak eta kasu-multzoak (klusterrak):
  - » Sarna-agerraldiak eta legionellosi-kasuak zaindu dira.
  - » Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin, mahai gainean jarri da prebentzio-zerbitzuek hazteriaren, legionellaren eta hegazti-gripearen inguruan egiten dituzten jarduketen norainokoa.
  - » Eutsi egin zaio Osasun Publikoaren eta Laneko Osasun Unitatearen artean gaixotasun infekziosoak koordinatzeko taldearen lanari.

- » Beroaren ondoriozko alertak eta alarmak. 2025eko udako kanpaina egin da eta 29 komunikazio egin zaizkie prebentzio-zerbitzuei eta gizarte-eragileei bero-boladetako prebentzioari buruz.
- » Gainera, OSALANek lan egin du lesio larrienak eta maizen gertatzen direnak eragiten dituzten laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko osasun-kalteak ikertzeko eta horietan esku hartzeko alerta-sisteman. 2025ean aztertu dira 2024an egindako kanpainen emaitzak; tipologien hiruhileko jarraipena egin da, eta jarduketak egin dira gorabeherak behin eta berriro jakinarazi diren enpresei dagokienez.

• Jarduketa horiek oinarri hartuta, OSALANen web-orrian eguneratu eta argitaratu dira "Istripu eta gaixotasun errepikakorrak prebenitzeko fitxak". Zehatz esateko, hauei buruzkoak:

- » Zurezko telefono-zutoina haustearen ondorioz altueratik erortzea.
- » Estalkietako eguzki-panelak instalatzeko eta mantentzeko lanetan altueratik erortzea.

• Osalanek lagundu egin du jatorria lanean duen minbizia ikertzen:

- » Mesotelioma, sinu paranasalen minbizia eta gibeleko angiosarkoma. EAEn diagnostikatutako sudur-barrunbeetako eta sinu paranasaletako adenokartzinoma-kasu eta mesotelioma-kasu guztiak ikertzen dira, eta lortzen ari gara horiek guztiak dagozkien espezialistek jakinaraztea gaixotasun profesionalaren susmoaren komunikazio-sistemari.
- » Sinu Paranasalen Minbizi Profesionalaren Sare Jagolean parte hartzen ari gara, osasun-sisteman, Onkologia Medikoko Espainiako Elkartearekin, minbiziari, lanari eta ingurumenari buruzko Onkologia Medikoko Espainiako Elkarteko lantaldearekin eta buruko eta lepoko tumoreak tratatzeko Espainiako taldearekin lankidetzan arituz. Zazpi autonomia-erkidegotako laneko segurtasun- eta osasun-institutuekin ere badihardugu.
- » Lau lantaldetan parte hartu dugu Jatorri Profesionaleko Minbiziaren Prebentziorako Agenda Nazionalerako ekintzen proposamena egiteko.
- » Radonak eragindako biriketako minbiziaren protokoloaren diseinuan parte hartzen ari gara.

• "Laneko minbiziaren zaintza epidemiologikorako EAEko 2023-2024ko urteko txostena" argitaratu da sudur-barrunbeetako eta sinu paranasaletako adenokartzinomaren intzidentziaren berri izateko, laneko esposizioari egotzi ahal zaizkion kasuak identifikatzeko, EAEko profila definitzeko eta gaixotasun profesionalaren susmo gisa izapidetzen ari diren kasuez eta hala aitortutakoez informatzeko.

• Osasuna sustatzeko pilula hauek argitaratu dira web-orrian:

- » Elikadura eta lanaren arteko harremana, martxoak 4.
- » Txandakako lanen kudeaketa, ekainak 4.
- » Denboraren kudeaketa, irailak 4.
- » Adinaren kudeaketa, abenduak 4.

- Osasuna sustatzeko pilulen gidoiak eta animazioa egin dira, eta 2026an zehar argitaratuko dira OSALANen web-orrian. Bideo laburrak izango dira, eta antolakuntzako eta ohitura osasuntsuen gaineko gai hauei buruzkoak izango dira:
  - » Loa eta lana.
  - » Deskonexio digitala.
  - » Bizkarra eta lana.
- EAEko udaletako teknikariei aholkuak eman zaizkie amiantoa duten materialak kudeatzeko.
- Generoak lan-baldintzetan eta lanaren ondoriozko osasun-narriaduran duen eragina neurtzeari dagokionez, azterlan hauek argitaratu eta zabaldu dira OSALANen web-orriaren eta zenbait hitzaldiren bidez:
  - » Euskadiko adikzioei buruzko inkesta 2023: Lan-eremuko azterketa, genero-ikuspegia kontuan hartuta (2025).
  - » Genero-ikuspegia txertatzea Prebentzio Zerbitzu Propioa (PZP) edo Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua (PZM) duten enpresetan. Laburpen exekutiboa (2025).
  - » Arriskuen ebaluazioa genero-ikuspegitik (ekaineko hileko aholkua).
  - » Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeko zailtasun nagusiak. Zer eta nola egin dezakegu? (Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalaren jardunaldi teknikoko hitzaldia).

Osasun Publikoaren Zuzendaritzarekin egindako lankidetza-taldeetan hauek nabarmentzen dira:

- Gaixotasun kutsagarrien, klusterren eta txertoen arloko lankidetza-taldea: hazteriari aurre egiteko lanean ari gara, bereziki lan-inguruan eta inguru soziosanitarioan; lantokietan legionellosiaren kasuak eta agerraldiak daudenean jarduten da, bai eta Q sukarraren agerraldiak daudenean ere, eta lantokietan tuberkulosiaren zaintza epidemiologikorako protokoloa eta txertaketak daude.
- Informazio-sistemen koordinaziorako lankidetza-taldea: EAEko Zaintza Epidemiologikoko Sistema: amiantoaren eraginpeko langileen osasuna zaintzea, datuen gutxieneko multzoa, gaixotasun profesionalei buruzko susmoen jakinarazpena eta prebentzio-zerbitzuen osasun-arloko jarduerak.
- Plan Onkologikoan, lanaren ondoriozko minbizia aztertzeko koordinazio-taldea, sudur-barrunbeetako eta sinu paranasaletako adenokartzinomaren eta mesoteliomaren aktualitatea ardatz duena.
- Osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko jarduerak koordinatzeko taldea.
- Gaixotasun profesionalei buruzko susmoen jarraipen-batzordea, honako hauekin: Osalan, Osasun Saileko Ikuskaritza medikoa, Osakidetza (lehen mailako arreta eta espezializatua),

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak eta Lagun Aro.

ARDATZA 3 GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEK AZPIMARRATU EGIN DUTE GOBERNANTZAK LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN DUEN BALIOA

6. HE. Botere publikoek EAEko Administrazioaren eskumenen barruan egiten dituzte legeak, gaur egungo araudia berrikusten dute, hura hobetzea sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen.

Laneko arriskuen prebentzioaren arloan eskumena duten administrazio eta agintarientzako koordinazio, aholkularitza eta laguntza teknikoaren esparruan, OSALANek jarduera hauek egin ditu 2025ean:

- Aplikazio bat ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren eta osasun-zerbitzuen eskaerak elektronikoki izapidetzeko, bai eta auditoretza-entitate espezializatuenak ere. Gaur egun, horrela izapidetzen dira eskabide horiek.
- OSALANek laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzen eta Laneko Ikuskaritzaren laguntza teknikoko eskariei erantzun die.

9. taula. Laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzek laguntza teknikoa jasotzeko egindako eskaerak. 2025. urtea.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Jasotako errekerimendu kopurua	35	150	104	**289**
Egindako txosten kopurua	21	135	95	**251**
Epaiketetara joatea	3	7	7	**17**

- OSALAN lankidetzan aritu da Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailarekin analizatuz zein eragin duen makinak diseinatu eta egiteko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituen (EB) 2023/1230 Erregelamendura egokitzeak eta zein diren arrisku-egoerak eragiteko adina gaitasun duten prebentziozko gabeziak.
- OSALAN koordinatuta jardun da Lan Agintaritzarekin amiantoa duten materialak kentzeko lanak kontrolatzen.

10. taula. Amiantoa duten materialak kentzeko Euskal Autonomia Erkidegoan aurkeztutako lan-planen kontrola. 2025. urtea.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
AURKEZTUTAKO PLANAK				
Aurkeztutako planak, guztira	229	281	294	**804**
Planak aurkeztu dituzten enpresen kopurua	27	42	37	**106**
ONARTUTAKO PLANAK				
Onartutako planak, guztira	208	269	264	**741**
EGINDAKO BISITALDIAK				
Txostena egin aurreko bisitaldiak	1	13	24	**38**
Egiaztapen-bisitaldiak	50	27	8	**85**
Egindako bisitaldiak, guztira	**51**	**40**	**32**	**123**
EGINDAKO TXOSTENAK				
Egindako txostenak	301	376	470	**1.147**

- OSALAN lankidetzan aritu da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera kontrolatzeko eginkizunak betetzeko, bai prebentzio-zerbitzu propioetan (PZP), bai kanpoko prebentzio-zerbitzuetan (KPZ). Hona hemen emaitzak:

  » Osasun-baimenak eta prebentzio-zerbitzuen kontrola, arau-hausteen zehaztapena barne. 11. taulan adierazitako jarduketen aktak egin dira, eta zehapen-espedienteak hastea proposatu da zazpi kasutan, haietan ikusi baita osasun-jarduerak egiten dituzten osasun-langileek ez zutela baimenik.

11. taula. Prebentzio-zerbitzuen osasun-baimena eta kontrola. 2025. urtea**.**

JARDUERA	2025
Osasun-zentroaren osasun-baimena	
Berria	**24**
Berritzea	**44**
Jarduera uztea	**32**
Datuak aldatzea	**61**
Datu orokorrak	**0**

JARDUERA	2025
Prebentzio-zerbitzuaren osasun-baimena	
Berria	**5**
Jarduera uztea	**7**
Lantokiak	**379**
Langileen datuak	**92**
Datu orokorrak	**58**
Osasun-jarduerak azpikontratatzea	**1**
Lankidetza-akordioa	**0**
Zerbitzu farmazeutikoa (altak)	**13**
Zerbitzu farmazeutikoa (bajak)	**0**
Bat-egitea	**7**
Funtsezko aldaketa	**6**
Errekerimenduak	
Errekerimenduak	**26**
Auditoretza	
Auditoretza	**1**

- OSALANek, Lan Agintaritzak eskatuta, kontrolatu egin du ea kanpoko prebentzio-zerbitzuek ziurtapen-baldintzak betetzen dituzten eta Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak eratzeko baldintzak betetzen diren, baita laneko arriskuen auditoretza egin nahi duten entitateenak ere.

12. taula. Prebentzio-zerbitzuak eta auditoria-entitateak akreditatzea. 2025. urtea.

	2025			
Lurraldea	**ARABA**	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**GUZTIRA**
Egindako jarduketa kopurua	7	1	0	8
KPZ	4	0	0	4
PZM	3	0	0	3
Auditoretzak	0	1	0	1

- Tramiterako onartu dira OSALANen laneko osasun-unitatearen eskumenen esparruari buruz jaso diren salaketak, osasun-agintaritza baitagokio prebentzio-zerbitzuetan, eta dagokion prozedura bete da.

13. taula. OSALANek jasotako salaketak. 2025. urtea.

Salaketak, osasun-agintaritza	29
Txostenak	29

7. HE. Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartu dira gobernuaren eta egoki diren beste administrazio publiko batzuen politika guztietan

OSALANek jarduera hauek egin ditu 2025ean, laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko beste administrazio publiko batzuekin batera egindako jarduketen barruan:

- Organo eskudunekin koordinatu da (Lan eta Meatze sailetako agintariekin, foru-aldundiekin, inplikatutako enpresa publikoekin, Laneko Ikuskaritzarekin eta OSALANekin) laneko arriskuen prebentzioa herri-lanean eta azpiegitura handien obretan hobeto txertatzeko.
- Herri-laneko eta azpiegitura handietako laneko arriskuen prebentzioaren jarraipen-batzordeak lau bilera egin ditu; eta, horien ondorioz, 32 bisita egin dira obretara.
- 2025ean ere, OSALANek «2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia» prozesuko buru izaten jarraitu du. Estrategiaren bitarteko ebaluazioa egin eta argitaratu da.
- Jarraitu da EHU-Osalan María Isabel Bilbao Bengoechea Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Katedrari bultzada ematen. Katedra horren helburua da Laneko Medikuntza eta Erizaintza unibertsitate-esparrura eraman ahal izatea eta graduko ikasleen artean prebentzio-kultura sustatzea.

Horri dagokionez, katedrak eragile-lanak betetzen ditu laneko osasunaren kultura gizartean eta erakundeetan zabaltzeko eta dinamizatzeko, baita laneko arriskuen prebentzioan parte hartzen duten eragileen sareari aholkularitza eta laguntza emateko eginkizunak ere. Katedrak, horrela, erantzun egiten dio adituen ezagutza unibertsitatearen eremu akademikotik kanpora eramateko konexio-eragile bat izateko beharrari.

- Emakunderekin lankidetzan jarraitu da, baterako ekintzak egiteko, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatze aldera.
  - » Emakunde-Osalan batzorde mistoaren bilera egin da, 2024ko balantzea aztertu da eta 2026rako ekintza-planaren proposamena egin da.

» Gizonduz-ek bultzatutako ekimen batean parte hartu da. OSALANeko langileei prestakuntza eman zaie sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz.

» Eutsi egin zaio enpresen eta langileen kontsultei erantzuteko koordinazioari.

- OSALANek "2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala (EUSKADIPREBEN)" garatzen parte hartu du, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin batera eta hiru fo

Tabla 14. Desgaitasun ebaluazio taldeen bilerak. 2025. urtea.

Ebaluazio bilerak	17
Ikertutako kasuak	131

Europa mailako jarduketak:

SAF€RA: Euskal enpresek parte hartuko duten industria-segurtasuneko ikerketa-proiektuak finantzatu dira, hazkunde jasangarri eta adimentsua lortzeko; horrela, aukera ematen zaie prebentzioaren bidez nazioartekotzeko.

Europako MODERNET sarea: Monitoring trends in Occupational Diseases and tracing new and Emerging Risks in a NETwork deritzon sareak lankidetzan aritzeko aukera ematen die osasunaren arloko langileei, laneko gaixotasunak eta arrisku berriak zaintzeko.

Estatu mailako jarduketak:

- OSALANek parte hartu du Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren osoko bilkuretan, bai eta organo horren barruan sortutako batzorde eta lantaldeetan ere:

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren osoko bilkura

Lantaldea: 2023-2027ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako Estrategia

Lantaldea: Suteen prebentzioa eta itzalketa

Lantaldea: Amiantoa

Lantaldea: Eraikuntza
- Altueran egindako aldi baterako lanen azpitaldea

Lantaldea: Balio-mugak

Lantaldea: Nekazaritza-sektorea • Laneko azpitaldea: Nekazaritzako makinak • Laneko azpitaldea: Basolanetako jardunbide egokiak
Lantaldea: Nahasmendu muskulueskeletikoak
Lantaldea: Laneko bide-segurtasuna
Lantaldea: Arrisku psikosozialak
Lantaldea: Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta prestakuntza
Lantaldea: Itsas arrantzaren sektorea Laneko azpitaldea: Itsaso- eta arrantza-sektoreko babes-ekipamendua
Lantaldea: Silize-hauts arnasgarria

- OSALANek, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin batera, talde hauetan parte hartu du:

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako sarea
Lanbide-esposizioaren mugak
Lan-istripuek eragindako heriotzen tasaren analisia
Agente fisikoak
Ikertutako lan-istripuak (BINVAC)
Agente kimikoekiko esposizio-egoerak (BASEQUIM)
Makinek sortutako lan-egoera arriskutsuak (BASEMAQ)
PREVENCION 10.es aholkularitza publikorako sistema
Gaixotasun profesionalak ikertzea
Minbizia sortzen duten agenteak
Enpresa Osasungarrien Espainiako Sareko Egiaztapen Batzorde Teknikoa
Amiantoaren Arriskuko Enpresen Erregistroa eta amiantoarekin lotutako beste datu batzuk kudeatzeko tresna informatiko bat garatzea
Nekazaritzako eta basogintzako makinekin eta traktoreekin lotutako istripuak aztertzea
Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalaren eta autonomia-erkidegoen gaixotasun profesionalei buruzko lantaldea. Gaixotasun profesionaletarako elkarreragingarritasun-plataforma.

Laneko Minbiziaren Estrategia Nazionalean parte hartzea Traumatikoak ez diren lan-istripuen prozedura egiteko zereginean parte hartzea Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin
Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin enpresa osasungarrien sarean parte hartzea
Radonaren planean parte hartze

- OSALAN elkarlanean aritu da Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Lurraldearteko Sarearekin, talde hauetan parte hartuz:

Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzea
Arrisku psikosozialen kudeaketa
Amiantoa
Prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak koordinatzea
Prebentzio-jardueretarako kalitate-irizpideak

- OSALANek UNEren (Normalizazioko Espainiako Elkartea) Normalizazioko Batzorde Teknikoetan parte hartu du:

81 AEN/NBT: Laneko segurtasuna eta osasuna. Laneko babes kolektiborako bitartekoak. 6. lantaldea: Forjaketapeko segurtasun-sareak 4. lantaldea: Ertza babesteko behin-behineko sistemak 2. lantaldea: Segurtasun-sareak eta euskarriak
81 AEN/NBT: Laneko segurtasuna eta osasuna. Agente kimikoek eragindako arriskuen ebaluazioa
311 AEN/NBT: Entretenimenduaren industria
180 AEN/NBT: Obretako aldi baterako lanetarako ekipamendua 2. lantaldea: Kofratuak 4. lantaldea: Zamalanetarako plataformak
171 NBT: Giro-kalitatea barnealdeetan. Balorazioa egiteko analisiak eta auditoretzak

- ISO-Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundearekin:

ISO 283 batzorde teknikoa. 5. lantaldea: Gaixotasun infekziosoak prebenitzeko jarraibideak

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, ekintzak koordinatzeko:

Araugintza-garapenean lankidetzan aritzeko taldea: Euskadiko osasun-plana, Prebentzio Zerbitzuen Osasun Jardueren Dekretua.
Gaixotasun kutsagarrien, klusterren eta txertoen arloko lankidetza-taldea.
Informazio-sistemen koordinaziorako lankidetza-taldea.
Osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko jarduerak koordinatzeko taldea.
Lanaren ondoriozko minbizia aztertzeko koordinazio-taldea.

- Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu gara arlo honetan:
  - » Euskadiko 2025-2030eko Onkologia Plan Integrala egitea

Beste arlo batzuetan, OSALANen lankidetza-jarduera nagusiak hauek izan dira:

Laneko Arriskuen Prebentziorako Fundazioaren Patronatua.
Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluko Osasun Publikorako Batzordearen laneko osasunari buruzko txostena.
CANO taldean parte hartzea, Galiziako, Asturiasko eta Kantabriako Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutuekin batera.
Herri Lanetarako Erakundearteko Batzordea eta Herri Lanetarako Lurralde Batzordeak.
Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua.
Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuen Zuzendaritzako Kontseilua.
Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoiko Lanari buruzko Erakundearteko Mahaia.
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra.
SEGURBIDE, enpresak eta prebentzio-zerbitzuak bideko lan-istripuen inguruan sentsibilizatzeko ikerketa-proiektua. Trafiko Zuzendaritzak parte hartzen du.
Amiantoa kentzeko lan-planetan adostutako irizpideak ezartzeko lantaldea: OSALANek, Lan Zuzendaritzak eta Laneko Ikuskaritzak parte hartzen dute.
Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.
Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeko talde teknikoa.
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearekiko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko taldea.

EAEko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoaren batzordea.
Adikzioen Euskal Kontseilua.
Sasoikako Lanari buruzko Erakundearteko Mahaia.
ASEAMAC Asociación de alquiler de maquinaria y equipos elkartearekin lankidetza.
Gaixotasun profesionalaren susmoaren jarraipen-batzordea, Ikuskaritza Medikoekin, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateekin eta Osakidetzarekin batera.
Baterako jarduketak egitea amiantoa lanean erabiltzearen ondoriozko patologiek erasandako langileei dagokienez. Hauek osatzen dute erakundearteko lantalde hori: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, OSAKIDETZA – Euskal Osasun Zerbitzuak eta OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak.
Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearen, Bilboko Mediku Zientzien Akademiaren eta OSALANen arteko lankidetza, prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza planeko jardueretarako aliantza estrategikoa. Osalan amiantoaren biktimak baloratzeko taldean dago, Osasun Publikoarekin eta Ingurumen Osasunarekin batera.

OSALANek lanean jarraitzen du bere barne-prozesuak eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak hobetzen, 2025ean egindako honako jarduera honekin:

- 2024ko jardueren memoria eta 2025eko kudeaketa-plana egitea eta zabaltzea.
- OSALANeko artxibo eta agirien kudeaketa egokitzea EAEko administrazio orokor eta instituzionaleko artxibo eta kudeaketako sistemara.
- 2022-2025eko Berdintasunerako II. Plana gauzatzea eta haren jarraipena egitea, eta 2024ko Berdintasunerako Plana ebaluatzea, Emakundek eskatuta.
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana egitea (VII. Plangintza-aldia, 2023-2027).
- Datu pertsonalak babesteko politika, informazio-sistemak eta kudeaketa dokumentala ezartzea.
- Kontratuen, dirulaguntzen eta hitzarmenen jarraipena egitea.

8. HE. Hobetu egin dira laneko arriskuen prebentzioaren egungo ereduan txertatzea zaila duten lan-moduak dituzten kolektiboen (autonomoen, plataformen, etxean lan egiten dutenen) lan-baldintzak eta laneko segurtasunerako eta osasunerako sarbidea.

2025ean, OSALANek kolektibo horrentzako laneko arriskuen prebentzioari buruzko lineako ikastaroa eman du. Ikastaro hori bost ediziotan eman du, honela banatuta:

Edizioak	Egunak
1. edizioa	Otsailaren 3tik martxoaren 31ra
2. edizioa	Apirilaren 7tik maiatzaren 31ra
3. edizioa	Ekainaren 2tik uztailaren 31ra
4. edizioa	Urriaren 6tik azaroaren 30era
5. edizioa	Abenduaren 1etik 2025eko urtarrilaren 31ra

15. taula. Langile autonomo trebatuak. 2025. urtea

Langile autonomo trebatuen kopurua	228
Langile autonomoentzako lineako ikastaroaren moduluak	5

9. HE. Ezagutza handitu egiten da laneko arriskuen prebentzioari lotutako prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatuz generoaren ikuspegitik; horrela, aurrea hartu dakieke gizartean (zahartzea, lana antolatzeko beste aukera batzuk, globalizazioa), teknologian (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenean (klima-aldaketa) gertatzen diren aldaketei

OSALANek **prestakuntza-jarduerak** antolatzen, garatzen eta diruz laguntzen ditu prebentzioaz arduratzen diren eragile nagusientzat, bai enpresetan, bai prebentzio-zerbitzuetan. Gainera, sindikatuekin lankidetzan jardunez, prebentzio-ordezkariak trebatu dira. Prebentzio-zerbitzuetako teknikariei eta osasun-langileei ere ematen die prestakuntza eguneratua. Prebentzioaren arloko etorkizuneko osasun-langileak hartzen ditu praktiketan. Eta langile autonomoentzako prestakuntza antolatzen du.

OSALANek prestakuntza ematen die prebentzio-zerbitzuetako lan-osasunaren arloan lan egiten duten osasun-langileei, Osakidetzako osasun-langileei, Laneko Medikuntzako eta Erizaintzako espezialitateak ikasten dabiltzan barneko mediku egoiliarrei (BAME) eta barneko erizain egoiliarrei (BAEE). Eta Erizaintzako ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie.

Tailerrak, ikastaroak eta jardunaldi teknikoak eta dibulgaziozkoak

- Entitate eta instituzioekin lankidetzan arituz, OSALANen dibulgazio-lana hainbat hitzaldi eta aurkezpenetan erakutsi da, 39 jardunaldi tekniko edo dibulgaziozkotan, askotariko kolektiboentzat.

16. taula. OSALAN egon den tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak. 2025

EKITALDIA	ANTOLATZAILEA	DATA	LEKUA
Laneko Segurtasun eta Osasunaren Fundación San Prudencio XXIV. biltzarra: Hainbat gai lan-osasunean	Laneko Segurtasun eta Osasunaren Fundación San Prudencio	Otsailak 26	Vitoria-Gasteiz
"Zenbakiez harago: pentsatzeko estiloek emozioak nola eraldatzen dituzten enpresan"	SEA	Otsailak 27	Vitoria-Gasteiz
Jardunaldi teknikoa: Genero-ikuspegia laneko segurtasunean eta osasunean txertatzea	Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Institutua	Martxoak 3	Madril
Ongizate emozionalerako estrategiak enpresetan	Ágora Bienestar	Martxoak 11	Bilbo
Salaketen kanala: Langileen osasuna babestea	APD Euskadi	Martxoak 27	Bilbo
Amiantoa agerian. Jarduketa segururako giltzarriak. Denok jakin behar duguna	Fraternidad-Muprespa	Maiatzak 7	Linean
Enpresa Osasuntsua Jardunaldia: Kapital psikologikoaren garapena: Erakundeetako ongizaterako eta eraginkortasunerako giltzarriak	SEA	Maiatzak 21	Vitoria-Gasteiz
Arrosaz harago: Bularreko Minbizi Metastasikoari aurre egiteko enpresa inpaktua	Maite ta bizi	Maiatzak 22	Bilbo
Amiantoari eta udal-inbentarioei buruzko ikastaroa	HAEE	Maiatzak 22-30	Bilbo
Amiantoa agerian. Jarduketa segururako giltzarriak. Denok jakin behar duguna	Fraternidad-Muprespa	Maiatzak 7	Vitoria-Gasteiz
Udako ikastaroa "Arrisku psikosozialak lanean: aurrerapen zientifikoak eta ikuspegi aplikatuak"	ISSGA	Ekainak 11-13	Ribadeo

“Adimen artifiziala eta haren aplikazioa laneko arriskuen prebentzioan”	APD Euskadi	Ekainak 18	Vitoria-Gasteiz
Laneko erizaintza 2025. urtean	EHU-Osalan	Irailak 1	Donostia
Absentismoaren kostua: erantzun estrategiko baterako gakoak	APD Euskadi	Irailak 17	Bilbo
Lana eraikuntza-sektoreko bero-boladetan	Euskadiko CCOO	Irailak 25	Bilbo
Enpresa Osasuntsua Jardunaldia: Dibertsitatearen eta inklusioaren aldeko enpresak. Nola bete desgaitasunaren legea zure enpresan	SEA	Irailak 25	Vitoria-Gasteiz
Erroldak egitea eta amiantoa kentzea toki-erakundeetan	CIMA	Irailak 26	Torrelavega
Prebentzioa bost zentzumenekin	Prebentzioaren Katedra, Kantabria	Urriak 7 eta 8	Santander
Segurtasuna eta prebentzioa eraikuntzaren sektorean. Tresna berritzaileak. Prebentzio-baliabideen eskuliburua - CANO taldea	Laneko segurtasunaren eta osasunaren Kantabriako Institutua	Urriak 10	Santander
Jardunaldi teknikoa: Laneko indarkeria eta jazarpena	Mutualia	Urriak 14	Bilbo
Prebentzio-baliabideen eskuliburua aurkezteko jardunaldia - CANO taldea	ISSGA	Urriak 17	Ourense
Buru-osasuna lanean. Kasuak hauteman eta kudeatzea	Osarten	Urriak 24	Arrasate
Fabrikazio Aurreratuaren eta Makina-Erremintaren 24. Kongresua	24CMH	Urriak 29	Donostia
Lan-absentismoa, osasun-, gizarte- eta ekonomia-arazoa	Bilboko Mediku Zientzien Akademia	Urriak 29	Bilbo
Zuraren astea: 2025-2027 Baso Talka Planaren aurkezpena	AZTI-Baskegur-Osalan	Urriak 30	Bilbo
“Laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia aintzat hartuta. Prebentzio-zerbitzuen egiteko eraldatzailea”	APD Euskadi	Urriak 30	Donostia

Minbizia sortzen duten agenteak, mutagenoak eta erreprotoxikoak. Identifikazioari eta prebentzio-neurriei buruzko tailer praktikoa	Administrazio Publikoaren Galiziako Eskola/ ISSG	Urriak 30	Santiago de Compostela
Laneko Arriskuen Prebentzioan emakumeen aurkako indarkeria matxistara hurbiltzea	Emakunde	Azaroak 5	Bilbo
Erakunde osasungarrien III. Topaketa	SEA	Azaroak 6	Vitoria-Gasteiz

- Era berean, OSALANek tailer, ikastaro eta jardunaldi tekniko eta dibulgaziozko hauek antolatu ditu, eta horietan laneko arriskuen prebentzioko profesionalek parte hartu dute, eta hainbat gai landu:

17. taula. OSALANek antolatutako tailerrak, ikastaroak eta jardunaldi teknikoak eta dibulgaziozkoak. 2025

• Otsailak 21. Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako jardunaldia: "Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Ikerketa: landu gabeko gaia".
• Maiatzak 16. Jardunaldia, PVD prebentzio-alderdiak: "ikusmen-sindrome informatikoa eta begi lehorra".
• Maiatzak 24. Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako jardunaldia: "Gaueko txandarekiko esposizioa dutenen bularreko minbizia zaintzeko jardunbide egokiaren gida".
• Ekainak 5. Prebentzio-zerbitzuetako teknikariak eguneratzeko X tailerra: "Makinetako segurtasuna".
• Ekainak 12. Prebentzio-zerbitzuetako teknikariak eguneratzeko X tailerra: "Makinetako segurtasuna" (2. edizioa).
• Ekainak 26 eta 27. Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko OSALANen XV. Udako Ikastaroa. "XXI. mendeko enpresa- eta gizarte-eredu berria: laneko arriskuen prebentziorako erronka".
• Urriak 20. Eraikuntzako jardunaldia. "Lan segurua eraikuntzaren sektorean".
• Urriak 31. Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako jardunaldia: "Belauneko patologia eguneratzea".
• Azaroak 11. Prebentzio-zerbitzuetako teknikariak eguneratzeko XI. tailerra: "Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentziozko kudeaketa".
• Azaroak 20. Osalanen Laneko psikosoziologiari buruzko XV. jardunaldiak: "Esku hartzea laneko indarkeriaren tipologien aurrean".
• Laneko arriskuen prebentzioari buruzko lineako ikastaroa langile autonomoentzat (5 edizio).

- OSALANek prebentzioko ordezkarien prestakuntza sustatzen du, dirulaguntzen bitartez.

18. taula. Prestatutako prebentzioko ordezkariak. 2025. urtea

Lurraldea	Prestakuntza normatiboa Prebentzioko ordezkarien kopurua	Prestakuntza teknikoa Prebentzioko ordezkarien kopurua	GIZONAK	EMAKUMEAK	PREBENTZIOKO ORDEZKARIAK, GUZTIRA
ARABA	139	144	172	111	283
BIZKAIA	336	491	480	347	827
GIPUZKOA	224	281	345	160	505
GUZTIRA	699	916	997	618	1.615

- Prebentzio-zerbitzuetako arlo teknikoan lan egiten duten teknikarientzako prestakuntza.

19. taula. Prebentzio-zerbitzuetako teknikarientzako prestakuntza-jarduerak. 2025. urtea

Antolatutako tailerrak, guztira	Parte-hartzaileak, guztira	Emakumeak	Gizonak
5	557	% 56	% 43

- Laneko osasunaren arloan lan egiten duten osasun-langileentzako prestakuntza.

20. taula. Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza-jarduerak 2025. urtea

Antolatutako tailerrak, guztira	Parte-hartzaileak, guztira	Emakumeak	Gizonak
3	505	% 73	% 27

- Osakidetzako osasun-langileen lan-osasuneko prestakuntza errazteko eta sustatzeko, 2025ean iraupen laburreko bideoen gidoiak eta animazioa egin dira, prestakuntza-pilula batzuk sortzeko. Pilula horiek lau hilean behin argitaratuko dira OSALANen web-orrian, 2026an zehar, eta hauek dira:
  - » Telelanaren gaineko pilula
  - » Lanbide-asmaren gaineko pilula

» Prebentzio-zerbitzuak vs mutuak pilula

- Osakidetzako langileentzako prestakuntza-ikastaro bat egin da Jakinsarea plataformaren bidez, eta prestakuntza- eta sentsibilizazio-saioak egin dira ESIentzat eta ospitaleko arreta-zerbitzuko buruentzat. Osakidetzako ospitaleek eskatuta ere egin dira prestakuntza-jarduerak.
- Euskadiko Lan Osasuneko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionaleko BAME R4 barneko mediku egoiliarren prestakuntza eta BAEE barneko erizain egoiliarren prestakuntza:

21. taula. BAMEen eta BAEEen txandaketa OSALANen. 2025. urtea

Barneko mediku egoiliarren (BAME) kopurua	Barneko erizain egoiliarren (BAEE) kopurua	Emakumeak	Gizonak
6	5	7	4

- EHUrekin sinatu zen hitzarmenaren arabera, 2025ean erizaintzako 4 ikaslek praktikak egin dituzte OSALANen, Bizkaiko Laneko Osasuneko Unitatean.
- OSALANek, gainera, hitzarmen bat du EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearekin, EHUko Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Masterra bultzatzeko, ez soilik finantzaketan, baita irakaskuntza-lanetan ere. Hala, masterreko 67 ikastordu ematen dituzte OSALANeko teknikariek eta sanitarioek, eta horietako lau ikastordu laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoak dira.
- EHUko Zuzenbide Fakultatearekin ere lan egiten du, master honetan: “Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra: Berdintasun Agenteak”. OSALANeko teknikariek eta berdintasun-taldeko beste langile batzuek eman dute.

Ikerketa-proiektuak

OSALANek laneko arriskuen prebentzioan **ikertzea eta berritzea** sustatzen du, gizarte-, teknologia- eta ingurumen-aldaketei aurrea hartzeko, norberaren ikerketaren bidez edo ikerketara bideratutako dirulaguntzen bidez.

22. taula. Europako SAf€RA deialdiaren eremuan diruz lagundu diren eta 2025ean gauzatzen ari diren proiektuak

Erakundearen izena	Proiektua
Ipartic Consulting	AIPER collaboration - AI-PowERed human-robot work environments for safe, healthy, and trustworthy collaboration (Gizakiaren eta AA bidez elikatutako robotaren elkarreragina dagoen laneko giroak, konfiantzazko lankidetza segurua eta osasuntsua izateko). Italia – EAE – Frantzia.
PESI – Plataforma Española de Seguridad Industrial	Safe – and sustainability-by-design – approaches for energy storage systems in Green and circular economy (SuESS)
BIOBide (Mondragon Unibertsitatea)	PFESS – PFAS-Free Membranes for Energy Storage and Conversion Systems (PFA gabeko mintzak, biltegiratzeko eta energia bihurtzeko sistementzat). Austria – EAE – Italia – Alemania.

Gidak, protokoloak, gidalerroak eta gomendioak egitea

- Gidak, protokoloak, jarraibideak eta gomendioak egin dira sektore eta diziplina bakoitzean prebentzioko jarduerak egiteko:
  - » "Trenbide-gainegiturak eraikitzean sortzen diren lan-arriskuak prebenitzeko gidaliburuaren" 2. zatia argitaratu da.
  - » "Prebentzioko baliabidearen eskuliburua" eguneratu eta argitaratu da, CANO proiektuan Kantauri Itsasoko Ertzeko Erkidegoen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeekin lankidetzan.

10. HE. Informazio-sistema eta adierazle egokiak ezarri dira datuak sistematikoki biltzeko eta azterketa egiteko eta eragileei eta gizarteari horien berri emateko; horrela, prebentziorako eta osasuna babesteko behar diren neurriak planifikatu eta ebaluatu ahal izango dira, genero-ikuspegia eta beste gizarte-ezaugarri batzuk kontuan hartuz

Informazioaren arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren laneko segurtasunaren eta osasunaren egoera eta bilakaera ikuskatze aldera, OSALANek informazio-sistema hauek kudeatu ditu, erakundeak berak garatuta:

- Laneko segurtasuneko eta osasuneko datuen informazio-sistema: Gutxieneko Datu Multzoa (GDM)

- Osasun Zerbitzuen eta Osasun Jardueren fitxategia, bai eta auditoretza-erakunde espezializatuena ere
- Gaixotasun profesionalei buruzko susmoen jakinarazpena
- Laneko minbiziaren programa
- Informazioaren eremu horretan bertan, 2024. urteko txostenak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko laneko ezbeharren eta gaixotasun profesionalaren inguruan.
- Datu horien guztien tratamendua eta ustiapena ahalik eta eraginkorrena izan dadin eta, gainera, datu horien babesa ziurta dadin, 2025ean OSALANek lan egin du bere sistema informatikoetako aplikazioak hobetzeko.
    - » Aplikazio bat egiten ari gara amiantoaren eraginpean dauden edo egon diren langileak eta enpresak kudeatzeko. Prozesuak etengabeko komunikazioa du Osasun Ministerioarekin, aplikazioa arazorik gabe komunikatu ahal izateko PIVISTEArekin.
    - » Aplikazio berri bat prestatu dugu, OSALANeko teknikariek lan-istripuak errazago iker ditzaten.

12. HE. Gizarte-eragileekiko elkarrizketa sendotu eta finkatu da, pertsonak oinarritzat hartzen dituen eta gizarte-ezaugarriak sartzen dituen laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa-eredua lortze aldera

Hauxe da OSALANen lehentasunezko beste lan-arlo bat: sustatzea autonomia-erkidegoaren eremuan lan-arriskuen prebentzioan parte hartzen duten eragileen elkarrizketa eta partaidetza, eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutuaren mezuak herritarrei helaraztea, horiei prebentzioan laguntzeko eta parte hartzeko tresnak eskainiz aldi berean.

OSALANek jarraitu du hiru aldeko topagune izaten (gizarte-eta ekonomia-eragileak eta administrazioa), bere Kontseilu Nagusiaren eta horren barruan sortutako batzordeen bidez. Esparru horretan zehazten dira erakundeak garatu beharreko politika eta ekintza nagusiak, eta hor egiten da haien gaineko jarraipena.

OSALANek parte hartzen du enpresa txiki eta ertainetako Prebentzio Kulturaren Euskal Behatokian, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko laneko osasunaren taldean sortutakoan.

Hiru aldeko topaguneaz gain, elkarrizketa eta lankidetza estu eta iraunkorra ezartzen da, ez soilik gizarte-eragileekin, baita prebentzioko ordezkariekin, prebentzioko entitate espezializatuekin eta prebentzioko antolakundeekin ere, ekimenak, proiektuak eta estrategiak garatzeko interes partekatuko arloak identifikatze aldera.

OSALAN
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

SERVICIOS CENTRALES

Camino de la Dinamita, s/n (Monte Basatxu)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

CENTRO TERRITORIAL DE ÁLAVA

C/Pintor Clemente Arraiz, 7
01008 Vitoria-Gasteiz (Álava)
Tel. +34 944 032 190

CENTRO TERRITORIAL DE BIZKAIA

Camino de la Dinamita, s/n (Monte Basatxu)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

CENTRO TERRITORIAL DE GIPUZKOA

Camino Maldatxo, s/n
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 944 032 190

www.osalan.euskadi.eus